

# **2022KO JARDUEREN TXOSTENA**

# AURKIBIDEA

---

## ANTOLAKETA-EGITURA

### 1. SAREAK ETA LANKIDETZAK

### 2. KOMUNIKAZIOA

1. Zirkularrak
2. Komunikabideekiko Kudeaketak
3. Web Ataria
4. Elkartetik egiten dugun Komunikazioaren hobekuntza
5. Newsletter-a
6. Sare Sozialak

### 3. Zerbitzuak

1. Akordioak Hirugarrenekin
2. Aholkularitza
3. Laguntzak eta diru-laguntzak eta lizitazioak
4. Lan-poltsa
5. Negozioen hedapena sare sozialetan
6. Produktuak edota zerbitzuak sare sozialen bidez online saltzeko prestakuntza
7. Kudeaketa tresnak: Newsletter eta ordainsari-erregistorako txantiloia
8. Iragarki-ohola

### 4. JARDUERAK

1. 2023ko Eguneroko Agenda.
2. App 'GERTU' eta #getxoenpresafreewifi.
3. Getxoko Erakusleihen XXXII. Lehiaketa.
4. Getxo Bono.
5. 35 Getxo Moda.
6. Bonu Ekimenak.
7. Hobetu zure online irudia. Kalitatezko Edukia Sortu.
8. Tokiko Negozioak Sustatzeko Proiektua, Publikoaren Interesa piztuko duen Ildo Gidaria sortuz.
9. Tokiko Negozio Txikiak Aintzatestea.

## ANTOLAKETA-EGITURA

---

Getxo Enpresako erabaki, gobernu eta betearazle organoak honela egituratzen dira:

- BATZAR OROKORRA: Elkartearen organo nagusia, kolektiboa osatzen duten enpresek osatua.
- ZUZENDARITZA BATZORDEA: Elkartearen gobernu-organoa eta Zuzendaritza. Aldian-aldiak biltzen da Elkarreak lantzen dituen gaiak aztertzeko.
- BATZORDE BETEARAZLEA: Zuzendaritza kide batzuek osatutako organoa, Zuzendaritza Batzordeak onartutako gaiak kudeatzen dituen eta proiektuak gauzatzearen arabera biltzen dena.
- KUDEAKETA TALDEA: Zuzendaritza Batzordeak onartutako proiektuak kudeatu eta gauzatzen dituzten profesionalak.

2022ko apiriaren 6an, 2021ko OHIKO BATZAR OROKORRA da, gai-zerrenda honi lotuta:

- 2022ko Ohiko Batzar Orokorraren Akta irakurtzea eta , hala badagokio, onartzea.
- 2021ean burututako jarduerak eta 2022rako Jardueren Plana.
- 2021ko informazio ekonomikoa y 2022ko Aurrekontua.
- 2021ean Elkartutako enpresak.
- Zuzendaritza Batzordeko karguen berrikuntza.
- Galde-eskeak.

Gainera, hurrengo dokumentaioa editatu da:

- 2021ko urteko memoria formatu digitalean.
- 2021ko ekitaldiko informazio ekonomikoa.
- 2022rako Jardueren Plana.
- 2022 ekitaldirako aurrekontua.

## 1. SAREAK ETA LANKIDETZAK

---

Tokiko 300 negozio inguru ordezkatzek aukera ematen digu gure elkarrea osatzen duten enpresen interesak defendatzeko eta haien beharrei aurre egiteko, bai kolektiboki, bai banaka.

2022an tokiko, foru eta lurralde-Administrazioekin etengabeko harremana izaten jarraituko dugu, eta ondoren ezartzen diren Foro eta ekimenetan parte hartuko dugu, sor daitezkeen beste lan-gune batzuei kalterik egin gabe, udalerriko enpresa-sareari oro har eta, bereziki, elkartutako enpresei mesede egitera bideratutako ekintzak sustatzeko:

- Getxoko Udala.
- Bizkaiko Foru Aldundia.
- Eusko Jaurlaritza.
- Bilboko Merkataritza Ganbera.
- Kontsumoko Arbitraje Batzordea.
- Hiri Zentroak kudeatzeko Espainiako Elkarrea.
- Euskadiko Merkataritza Foroa.

- Getxoko Enpresen Aholku Foroa.
  - Merkataritzako mahaia.
  - Ostalaritzako mahaia.
  - Enpresen Kontsulta-foroa.
  - Kontraste Lokaleko Mahai Politikoa.
- Tokiko Ingurumen Foroa.
  - Mugikortasunaren astea "Autorik gabeko eguna".
- Hirigintza Plangintzako Tokiko Foroa.
- "Erosketa Bakarrak" Proiektua.
- Euskararen Lagun den Merkataritza Sarea.

Era berean, tokiko enpresentzako laguntza egokia ekarriko duten laguntzak, diru-laguntzak, ekintzak eta neurriak eskatzen jarraituko ditugu, covid-19ak eragindako pandemiak eragin dituen ondorio ekonomiko negatiboak kontuan hartuta, baita Ukraniako gerrak eragindakoak ere.

Elkarteko kide diren enpresen multzoari eusteko eta handitzeko, lan profesional eta antolatua egiten dugu Getxoko negozioei Elkartearen jardueraren berri emateko, bai eta tokiko establezimendu bakoitzak, elkarteko kide izanik, izan ditzakeen onura eta erabilgarritasunaren berri emateko ere. Gainera, banan-banan aztertzen ditugu establezimendu batzuk gure kolektiboa integratzeari uzteko asmoa jakinarazteko dituzten arrazoia.

## **2. KOMUNIKAZIOA**

---

### **2.1 ZIRKULARRAK**

Dokumentu honen egunera arte, 39 jakinarazpen bidali dizkiegu enpresa elkartuei beren negozioetarako interesgarriak diren hainbat gairi buruz: araudia, laguntzak eta diru-laguntzak, lankidetzarako eta enpresa-sustapenerako jarduerak eta zerbitzuak, besteak beste. Bazkideen % 93k posta elektronikoki bidez jasotzen ditu komunikazioak, eta gainerako % 7ak mezularitza bidez.

### **2.2 KOMUNIKABIDEETIKO KUDEAKETAK**

Elkarteko kide den komunikazio-agentzia bat dugu, komunikabideekin, idatzizkoekin eta digitalekin, modu profesionalean harremanetan jartzen dena. Elkartek egiten dituen proiektuak zabaltzeko helburuarekin, baita horietan parte hartzen duten enpresak ere.

Zerbitzuak barne hartzen ditu komunikazio-planak definitzea, oharra eta prentsa-jakinarazpenak egitea, elkarrizketak kudeatzea, publizitatea kontratatzea, etab.

## 2.3 WEB ATARIA

Pasaden urtean 17.313 erabiltzaile berri bisitatu zuten [www.getxoenpresa.com](http://www.getxoenpresa.com).  
Web ataria ahalbidetzen du:

- Lokalizazio eta harreman datuak, logotipoa, establezimenduaren, bulegoaren, produktuen, etab. 6 irudi arte, web orrialde edota sare sozialeko profila zabaltzea kide bakoitzeko. Gainera, enpresa elkartu bakoitza udalerriko mapan dago lokalizatua eta geolokalizatua bezeroentzako, Web atarian mugikorretatik sartuz gero.
- Elkartearekin harremanetn jartzea, izena ematea eta hala badagokio, sustatzen ditugun proiektuak ordaintzea, ordainketa-pasabide seguru baten bidez.
- Hainbat dokumentu eskuratzea, hala nola enpresa-jardueran jarduteko interesgarriak diren zirkularrak, araudia eta informazioa.

2022an, komunikazio-kanal hori erabiltzen jarraituko dugu, egiten ditugun jarduerak eta bertan parte hartzen duten eta gure elkarte osatzen duten establezimenduak ezagutarazteko.

## 2.4 ELKARTETIK EGITEN DUGUN KOMUNIKAZIOAREN HOBEKUNTZA

Joan den urtearen amaieratik eta gaian adituak diren pertsonen laguntzarekin, gogoeta-prozesu bat egin dugu, bai sistemari buruz, bai Elkartetik egiten den komunikazioaren edukiari buruz, egiten dugun jardueraren eta bertan parte hartzen duten enpresen komunikazioa arinagoa eta erginkorragoa sortzeko.

Garapen berriaren barruan sartzen dira kontaktuak kargatzea, hainbat parametrotan oinarritutako segmentazio tresnak eta hartzaileen iragazketa, aurrez zehaztutako hedapen-zerrenda pertsonalizatuak, komunikazioak bidaltzeko ziriborroen diseinua, ikekierak aztertzeko esatistika-sistema, klikak, bidalitako komunikazioen erantzunak, etab.

Bazkide bakoitzak aukeratu ahal izango du zein hizkuntzatan, euskaraz edo gaztelaniaz, jasotzen dituen komunikazioak.

## 2.5 NEWSLETTER-A

Urtean zehar garatzen dugun jarduera, bertan parte hartzen duten enpresak, lege-berrikuntzak eta negozioen egunerokotasunerako interesgarria den informazioa biltzen dituzten boletín digitalak bidaltzen jarraituko dugu aldizka. Newsletterreko atal bakoitzak bere web ataleko estekak ditu, non informazioa zabalduta dagoen.

Harpidedunek newsletter-a jaso dezakete, aurretik aukeratu duten hizkuntzan, gaztelania edo euskara.

## 2.6 SARE SOZIALAK

Gizarte-sareen kudeaketan aditua den komunikazio-agentzia bat dugu, Elkartearen komunikazio-estrategia definitzen eta gauzatzen duena, Facebook (getxoenpresa), Twitter (Getxo\_Enpresa) eta Instagram (getxoenpresa) profilen bidez; gainera, sare horietan profila duten enprekin elkarreragiten du, eta jendea gehiago erakartzeko ekintzak garatzen ditu.

Elkarteak 2700 jarraitzaile baino gehiago ditu sare sozialetan, eta elkartutako enpresei gomendatzen diegu haien publikazioetan etiketatzea. Elkartetik ere zabaltzen ditugu negozio horiek. Era berean, Elkartetik argitaratzen dugun edukia partekatzen eta elkarreragitera animatzen diegu, sare sozial bakoitzan jarraitzaile kopurua hobetzeko asmoz, bai Elkartearen, bai Elkartera lotutako etablezimendu bakoitzaren onurarako.

## 3. ZERBITZUAK

---

### 3.1 AKORDIOAK HIRUGARRENEKIN

Zerbitzu honen bidez, Elkarteari lotuta egotearen ondorioz, negozioak baldintza bereziak dituzte aktibitatea gauzatzeko beharrezkoak diren hurrengo zerbitzuetan:

- Kontabilitate, Lan, Fiskal eta Merkataritza Aholkularitza: GESTORÍA RINCÓN y MARTIN LAUCIRICA GRUPO ASESOR.
- Obren Zuzendaritza eta Lizenzien Lorpena: ARKIBATZ.
- Legezkoa eta Juridikoa: GESTORÍA RINCÓN.
- Laneko Arriskuen Prebentzia eta Osasunaren Zaintza: IBERSYS.
- Produktu eta Zerbitzu Finantziarioak: KUTXABANK.
- Publizitatea eta Sustapena: VINILO FM
- Produktu Informatikoak/Telefonikoak konpontzeko eta softwarea eta hardwarea erosteko zerbitzua: NORVIS.

Gainera, enpresa elkartuek segurtasun- eta babes-produktuen eta zerbitzuen katalogo bat dute eskura, bai eta garbiketa- eta desinfekzio- zerbitzuena ere, prezioan edota zerbitzu baldintza berezietan. Hauek homologatuta dauden eta agintari eskudunek ezarritako baldintzak betetzen dituzten enpresa elkartuak eskaintzen dituzte:

- Holtz babesleak: ARMARIOS LOS CHOPOS.
- Aurpegirako eta babeserako pantaila: SUMIMAR.
- Binilozko eta nitrilozko eskularruak: SUMIMAR.
- Maskarak: SUMIMAR.
- Gel hidroalkoholikoa: SUMIMAR.
- Birusekin jarduteko eta birusak ezabatzeko berariazko garbiketa- eta desinfekzio-produktuak: SUMIMAR.
- Lokalak desinfektatzeko zerbitzua: DESINFECCIONES ABANDO.

Akordio bakoitzaren zehaztapena eta akordioak burutu diren enpresekin eskuragarri dago hemen: <https://www.getxoenpresa.com/eu/zerbitzuak/akordioak-beste-batzuekin/> eta <https://www.getxoenpresa.com/eu/covid-19-segurtasun-babes-eta-desinfekzio-produktuen-eta-zerbitzuen-katalogoa/>

### 3.2 AHOLKULARITZA

Urtarriletik hona, elkartutako enpresek egindako 18 kontsultari erantzuna eman eta kudeatu ditugu, hainbat gai desberdin buruzkoak, hain zuzen ere, legeari, udal-lizentziei eta lan-lizentziei buruzkoak, besteak beste. Gainera, negozio txikiei eragiten dieten araudiari buruzko hamabost bat neurri jakinarazi ditugu (gerraren ondorioak arintzeko premiazko neurriak, lan-erreforma, lanbide arteko gutxieneko soldata, jarduera uzteagatiko prestazio autonomikoak, covid-19agatiko bajak izapidetzea, etab.).

### 3.3 LAGUNTZAK ETA DIRU-LAGUNTZAK ETA LIZITATZIOAK

Urteko lehen hiruhilekoan, 16 laguntza eta diru-laguntza ezagunarazi dizkiegu elkartutako enpresei, honako arlo hauetan: kontratazioa, teknologia berrien ezarpena, inbertsiorako eta finantzaketarako, enpleguari eusteko, kultura sustatzeko eta ostalaritza-sektoreari laguntzeko 15 espediente izapidetu dira.

Jarraituko dugu informatzen, alholkularitza ematen eta eskabideak eta, hainbat erakunde eta instituzio desberdinak kudeatzen dituzten, laguntzen eta diru-laguntzen justifikazioak izapidetzen elkartutako enpresei eta jarraipena egiten, espediente bakoitza amaitu arte, kolektiboan sustatutako enpreseentzako interesgarriak izan daitezkeen lizitazioaz gain.

### 3.4 LAN-POLTSA

Zerbitzu honen bitartez, bakarrik kideentzako, kurrikulum egokienak aukeratzen dira elkartutako enpresak jakinarazten dizkiguten beharren arabera, kontratu arrunta, praktiketako edo beste formatukoaren bitartez, aukeraketa prozesuan laguntzen da eta lan-arloan aholkatzen da (kontratu mota egokiena, laguntzen eta diru-laguntzen erabilgarritasuna eta hala bada, honen disponibilitatea kontratazioa finantzatzeko, gizarte jarraipenerako kotizazioak, etab.). Aurten, 4 enpresa elkartu erabili egin dute zerbitzu hau administrazioko langileak, estetizistak eta barnealdeetako dekoratzaileak sartzeko.

Hala behar duten enpresek, Elkartearen aretoak erabil ditzakete hautagaiak hautatzeko.

### 3.5 NEGOZIOEN HEDAPENA SARE SOZIALETAN

Modu ez intrusiboan eta web-orrialdean edota sare sozialetan eskuragarri dagoen komunikazio publikoan oinarritzen, Elkartea osatzen duten enpresen informazioa eta irudiak argitaratzen ditugu, negozioak, produktuak eta zerbitzuak zabaltzen eta ikusarazten ditugu gure sare sozialen bitartez (Facebook, Twitter eta Instagram). Gainera, sektorea eta subsektorea kontuan hartzen dugu zabalkuntza egun zehatzetan saiatzeko egiten.

### 3.6 PRODUKTUAK EDOTA ZERBITZUAK SARE SOZIALEN BIDEZ ONLINE SALTZEKO PRESTAKUTZA

Kontuan hartuta biztanleriaren % 60a baino gehiago produktuak eta zerbitzuak bilatzen eta erosten dituela Internet-ren bitartez, eta aukera bat dela bezero kopuru handiagora ailegatzeko, bideoen produkzioan espezializatua den pertsonala banakako prestakuntza pertsonalizatua eskainiko dio zerbitzua erabiltzen duen establezimendu bakoitzari. Modu honetan, zerbitzura apuntatu nahi diren negozioak kalitatezko eta iraupen motzeko bideoak eraiki ahal izango dituzte merkaturatu nahi dituzten produktuak edota zerbitzuak publizitatu ahal izateko.

Prestakuntza eduki teorikoa izango du, baina nagusiki praktikoa eta proiektuan parte hartzen duten negozio bakoitzari lotuta eta bideoak nola egiten eta editatzen diren formatu desbedinetan irakatsiko da, establezimendu bakoitak publikatu eta zabaldu ahal izateko sare sozial bakoitzan duten profileen.

### 3.7 KUDEAKETA TREASAK: NEWSLETTER ETA ONDAINSARI ERREGISTRORAKO TXANTILIOIA

Nahi duten elkartutako enpresek, bere nahietara dituzte hurrengo tresnak negozioaren kudeaketa errazten dituztenak:

- Newsletter txantiloia zure harpidunekin-bezeroekin komunikatzeko nahi duzun momentuan. Txantiloia hurrengoa dauka: goiburua enpresaren irudiarekin, negozioaren aurkezpen laburra, argazkia + nabarmendu beharreko produktu/zerbitzuetarako azalpen-testua eta estekak, webguneko estekak dituen orri-oina eta enpresak dituen sare sozialak. Gainera, txantiloiarekin batera, oinarritzko erabiltzailearen gida simple bate maten da, boletin digitala egitea eta bidaltzea errazten duena.
- Ordainsari erregistrorako txantiloia: kontuan hartuta araudiak ezartzen duela enpresa guztiak beren txantiloia-erregistro bat izan behar dutela, tresna hau eskaintzen da soldata, soldata-osagarriak eta soldataz kanpoko ordainsariak sexuaren arabera bereizita jasotzea ahalbidetzen duena. Txantiloiak automatikoki kalkulatu dituzte urtebeteko epean lanbide-talde bakoitzak jasotakoaren batez bestekoa eta mediana, arauak ezartzen duen bezala, gainera tresna behar bezala erabiltzeko Elkartetik beharrezko prestakuntza eskaintzen da.

### 3.8 IRAGARKI-OHOLA

Elkarteko kide diren enpresek honako hauei buruzko mezuak argitaratu ahal izango dituzte: berrikuntzak, ekitaldiak, inaugurazioak, produktu-zerbitzu berritzaile eta bereizleak, titulartasun-aldaketa, kokapena, lortutako sariak eta aintzatespenak, etab. Horretarako sortutako atal espezifikoan: [www.getxoenpresa.com](http://www.getxoenpresa.com).



## 4. JARDUERAK

---

Elkartea osatzen duten enpresentzat interesgarriak izan daitezkeen beste jarduera batzuk alde batera utzi gabe, 2022an honako-ekimen hauek aurrera eramatea proposatzen dugu:

### 4.1 2023KO EGUNEROKO AGENDA

Elkartea osatzen duten enpresek, erakundeek, organismo publikoek eta elkarteak egiten eta ematen dituen jardueren eta zerbitzuen erakunde babesle/laguntzaileek Agenda pertsonalizatua jasoko dute, beren izen komertzialarekin, orrialde-egun formatuan eta jai egunekin, 2023. urterako.

Dietarioan, enpresa elkartuen eskura dauden publizitate-tarteak eta 2023rako jaiegun zerrenda sartuko ditugu.

### 4.2 APP 'GERTU' ETA #GETXOENPRESAFREEWIFI

Urte honetan zehar, jarraipena emango diogu proiektu honi, izan ere, 50 establezimendu elkartuk dute digitalizazio tresna bat, APP GERTU izeneko. Aplikazio mugikor bat da eta, haren bidez, kontsumitzaileek beren gailu mugikorren bidez ezagutu eta eskura ditzakete proiektuan parte hartzen duten tokiko negozioen eskaintzak, sustapenak eta informazioa.

GERTU digitala eta lokala konbinatzen duen erakusleihoa da, izan ere, eskaintzak edo sustapenak jaso nahi dituzten bezeroek establezimendu fisiko bakoitzera jo behar dute horiek gauzatzeko. Parte hartzen duten negozio bakoitzak 4 kanpaina-mota ezar ditzake bere profilean: "Beherapenak", "Bezero berria", Fidelizazioa" eta "Beste sustapen ekintza batzuk". Horretarako, adierazi behar diguzu egin nahi duzun sustapena edo eskaintza eta horren edukia kudeatzen da.

Ekimenean parte hartzen duen negozio bakoitza Getxoko mapa batean dago geolokalizatuta, eta deskripzio-fitxa bat du argazkiarekin, kokapenari eta harremanari buruzko datuekin eta egiten duen jardueraren xehetasunarekin. Gainera, kontuan hartu behar da tresnaren bidez bezeroei wifi bidezko interneterako konexioa ere eskaintzen zaiela, doan eta segurtasunez. Proiektuan parte hartzea bezeroen datuen informazio-iturri garrantzitsua da, esate baterako, establezimendutik pasatzen diren pertsona kopurua, establezimenduan sartzen diren pertsona kopurua, dendako konexio-kopurua duten pertsonen kopuruari dagokionez.

Proiektua Bilbao Dendak-rekin batera gauzaten da, eta aurrean sarean dauden negozioen kopurua handitzen saiatuko gara.

### 4.3 GETXOKO ERAKUSLEIHOEN XXXII. LEHIAKETA

Merkatariek, ostalaritzako-negozioek eta zerbitzu-enpresa txikiek azaroaren erdialdetik aurrera eman ahal izango dute izena lehiaketaren 32. Edizioan parte hartzeko. Aurreko deialdian, Getxoko 130 erakusleho baino gehiagok parte hartu zuten erakusleho fisikoaren kategorian (establezimenduaren kanpoaldetik ikus daitekeen dekorazioa) edota erakusleho birtualaren modalitatean (web ataria edota sare sozialen profila), eta sari interesgarriak lortzeko aukera izan zuten. Gainera, "Bye Bye Plásticos" sari berezia eskaintzen jarraituko da, lehiaketara aurkezten diren erakusleho fisikoek ingurumena errespetatu dezaten.

Erakuslehoen, dekorazioaren eta teknologia berrien arloan ibilbide luzea duten adituek osatutako Epaimahai Profesionalak ebaluatuko ditu proposatutako hautagaitzak.

Berrikuntza gisa, getxotarrek proiektuan parte hartzeko eta sariak lortzeko aukera emango dien ekintza batean parte hartu ahal izango dute, adibidez, balkoiak eta leihoak apainduz.

Edizio honetan, berriz ere, Lehiaketa eta bertan parte hartzen duten enpresak zabaltzeko kanpaina garrantzitsu bat egingo dugu, negozioek aukeratzen dituzten sarien edukia hobetzen saiatuko gara, eta erakusleho fisikoen modalitatean lehiaketara aurkezten diren erakuslehoen irudiak bilduko dituen mapa interaktibo bat sortuko da eta erakusleho parte hartzaile guztiak zabalduko ditugu.

Abenduaren erdialdean, erakusleho irabazleen zerrenda argitaratuko da, eta hainbat ekintza egingo dira hainbat kanalen bidez jendaurrean aitortzeko, eta, osasun-egoera ona dela eta, sariak emateko ekitaldi publikoa berreskuratuko da.

### 4.4 GETXO BONO

Aurten, Getxo Bonoko bi edizio egotea aurreikusten da, bata lehen seihilekoan eta bestea urtearen azken lauhilekoan.

Getxoko Udalaren finantziarioa kontuan hartzen duen ekimen honen bidez, atxikitako establezimenduetako erosketen eta kontsumoaren zati bat finantzatzen da.

Berriz ere, bezero publikoarentzat eta atxikitutako establezimenduentzat bonuak erosteko eta balioztatzeko ahalik eta eredu errazena sortu nahi da. Eredu hori zehaztu bezain laster jakinaraziko da, eta proiektuaren bi edizioetako bakoitzean parte hartzen duten establezimenduen berri emateko kanpaina esanguratsua egingo da.

## 4.5 35 GETXO MODA

Getxo Modaren 35. edizio honetan, eta iraunkortasuna ardatz hartuta, moda, kultura, gastronomia eta turismoa uztartuko dira. Urrian gauzatuko den proiektuak, besteak beste, honako ekintza hauek hartuko ditu:

- Tours moda 1 – Getxo DEKORATU BAT BEZALA: Udalerriko turismo-gune enblematikoetan argazki- eta bideo-ekoizpen bat egingo da, proiektuarekin bat egiten duten tokiko negozioetako jantziak eta look-ak erabilia. Horren ondorioz, tamaina handiko totemak dituen ibilbide bat sortuko da udalerriko kokaleku batean edo batzuetan, eta jendeak Getxon aurki ditzakeen moda, osagarri eta estilismoko proposamenak ezagutaraziko dira, look bakoitza osatzen duen establezimendu bakoitza argi identifikatuz.
- Kupula gardenak- PLANETA ETA MODA: instalazio original baten bidez moda ezagutzera emango da. Moda horren produkzio edo inspirazio sistema jasangarritasunean oinarritzen da, nobel diseinatzaileek eta nazioan eta nazioartean ospe handia dutenek egingo da.
- MAGAZINE ONLINE/WEB: Getxo Modaren webgunea Online Magazine batean bihurtuko dugu, eta bertan Getxo Modaren eduki guztia argitaratuko dugu, eta online erakustoki interesgarria izango da parte hartzen duten saltokientzat.
- SALTOKIETARAKO AD HOC KARTELAK: kartel pertsonalizatuak eta eksklusiboak diseinatuko ditugu parte hartzen duen saltoki bakoitzarentzat. Diseinu digitalak emango dira, sare sozialetara, webgunera etabarretara egokituta.

Aldez aurretik, proiektua gauzatu bitartean eta gauzatu ondoren, komunikazio- eta sustapen-kanpaina esanguratsu bat egingo da, eta, horren barruan, kalitatezko argazki- eta grafika-materiala, bideoak eta bestelako euskarriak, gizarte-sareen bidez programatutako ekintza espezifikoak, komunikabide handietan txertatzeak eta abar sartuko dira, bai saltokien proposamenak bai proiektuaren 35. edizioa osatzen duten ekintzak zabaltzeko.

## 4.6 BONU EKIMENAK

Tokiko administrazioaz gainera, bestelako administrazio batzuek bonu-programa bakoitzean egiten dituzten izapideak zabaldu eta bideratuko ditugu.

## 4.7 HOBETU ZURE ONLINE IRUDIA. KALITATEZKO EDUKIA SORTU.

Parte hartzen duen negozio bakoitzaren irudi indibiduala hobetzeko asmoz, baita maila lokal eta kolektiboan ere, jarraipena emango diogu joan den urtean hasi genuen proiektu honi, zeinaren bidez kalitate handiko material grafiko bereizgarria sortzen baita, parte hartzen duten negozioek beren online komunikazio-kanaletan erabil dezaketena: web ataria, sare sozialak eta argitalpenak.

ASIER GOMEZ ESTUDIO ospetsuak ematen du zerbitzua. Profesional horiek esperientzia handia dute publizitate-kanpainak egiten enpresa handientzat zein txikientzat.

Proiektuan parte hartzen duen negozio bakoitzak eskaintzen duen irudiaren aurretiko analisisa izango du. Ondoren, enpresak argazki-saioetan parte hartuko du, eskaintzen dituen produktuak/zerbitzuak, merkaturatzen diren edo zerbitzua ematen den lokala edo espazioa eta abar erakusteko hainbat material dituen book bat eduki ahal izateko. Material hori hautatu, editatu, ukitu eta formatu eta tamaina desberdinetara egokituko da, ondoren establezimenduak online kanal desberdinen bidez erabiltzeko, publizitate-inpaktu handiena lortuz.

Era berean, zerbitzu hori erabiltzen duen enpresa bakoitzak laguntza izango du, tutoretza bidez, bere komunikazio-kanaletan sortutako materialaren erabilera optimizatzeko.

Elkartetik, komunikazioaren zerbitzu garrantzitsu bat gauzatuko dugu, baita hau erabiliko duten enpresena.

#### **4.8 TOKIKO NEGOZIOAK SUSTATZEKO PROIEKTUA, PUBLIKOAREN INTERESA PIZTUKO DUEN ILDO GIDARIA SORTUZ.**

2022rako planteatzen dugun proiektu berri honen bidez, saltokiek, ostalariek eta zerbitzu-enpresek horizontalki lan egiten dute. Proiektuan parte hartzen duen establezimendu bakoitzari ikus-entzunezko materiala errealizatzean datza ekimena. Horretarako, parte hartzen duen negozio bakoitzeko eszenak eta irudiak bilduko dira, elementu edo trama komun bati lotuak, guztien artean minisail bat sortuz, ikusleek egindako bideo guzti-guztien interesa eta bistaratzea sortzeko.

Material guztia sortu ondoren, sortutako edukia eta proiektuan parte hartzen duten establezimenduak zabalduko dira, eta, era berean, negozio bakoitzak ikus-entzunezko materiala izango du bere bideoak sustatzeko, eta gainerakoek ere sustatzera gonbidatuko ditugu, kontuan hartuta negozioetatik sortutako ikus-entzunezko materiala elkarren artean lotuta dagoela eta, beraz, ikusleentzat interesgarria dela.

Ekimena eta bertan parte hartzen duten negozioak hainbat komunikazio-kanalen bidez jakinaraziko dira, barnekoak zein kanpokoak.

#### **4.9 TOKIKO NEGOZIO TXIKIAK AINTZATESTEA**

Tokiko negozio txikiak egiten duten lanagatik aintzatetsi ahal izango dira; horretarako, establezimendu saritu bakoitzak kalitatezko material grafikoa izango du, Qr kode bat izango duena, eta bertan idazle batek egindako kontakizun bat entzun eta bistaratu ahal izango da, Getxokoa ahal izanez gero.

Kontaktetan negozioaren ibilbidea eta egiteko modua azalduko dira, baita Getxoko beste negozio batzuekin batera tokiko jardueraren garapenari eta mantentzeari egiten dion ekarpena ere. Kontakizun guztiekin, horiek bilduko dituen euskarri bat argitaratuko da.

Era berean, komunikazio-kanpaina bat egingo da, proiektua eta aitortutako negozioak ekimenaren bidez zabaltzeko.

*GETXO ENPRESA (IFK: G48204655). Bere datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna da, eta jakinarazten dizu ezen, 2016ko apirilaren 27ko EDO n aurreikusitakoarekin bat, zure datu pertsonalak bildu eta tratatzen dituela, Erregelamendu honetan ezartzen diren neurri teknikoak eta antolamenduak aplikatuz, Arduradunaren produktu eta zerbitzuak eskaintzeko, eta, orobat, izendatutako edozein komunikabide bidaltzen dizula horretarako. Interesdun gisa eta datuen titular gisa, baimena eta baimena ematen duzu arduradunaren datu-basean sartzeko. Nolanahi ere, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko, eramateko eta haien aurka egiteko eskubideak doan erabili ahal izango dira. Horretarako, Erantzulearengana jo beharko da (helbidea: Arene kalea, 22, Getxo, 48991)*